

LC Districts

Interreg Europe



European Union
European Regional
Development Fund

**[ESKUALDEKO EKINTZA
PLANA. NAFARROA.]**

2021EKO AZAROA

Aurkibidea

0	Hitzaurrea.....	1
1	I. zatia – Testuingurua.....	3
1.1	Informazio orokorra	3
1.2	Politiken esparrua	3
1.3	Eskualde Diagnostikoaren ondorio nagusiak.....	6
2	II. zatia – Metodologia	11
2.1	Eskualde arteko ikuspegia eta ondorioak	11
2.2	Eskualdeko ikuspegia. Stakeholderrak.....	14
2.3	Eskualdeko hausnarketa estrategikorako prozesua	16
2.4	Antzemandako beharrian eta irtenbide nagusien zerrenda	19
3	III. zatia - Ekintzak.....	23
3.1	1. ekintza: Esku-hartze Globaleko Proiektuak diseinatzeko toki erakundeentzako laguntza lerroa	24
3.2	2. ekintza: Eraikitako eraikinaren liburuari buruzko eskualdeko araudiaren erregulazioa.....	27
3.3	Ekintzen eskema.....	31
4	IV. zatia – Eskualdeko Ekintza Plana onartzea	32

Taulen aurkibidea

1-1 taula. Informazio orokorra	3
2-1 taula. Aztertutako jardunbide onak	12
2-2 taula. Inplikaturako eskualde eragileak	14
2-3 taula. Antzemandako beharrian eta irtenbide nagusiak	19
3-1 taula. Garatu beharreko ekintzak.....	23
3-2 taula. 1. ekintzako adierazleak.....	26
3-3 taula. 2. ekintzako adierazleak.....	30
3-4 taula. Ekintzen eskema.....	31

o Hitzaurrea

Munduko biztanleriaren igoera, gizarte eta ekonomiaren garapenarekin batera, eragina izaten ari da gure planetaren biorritmoan. Gobernariak beharrezkotzat jo dute baliabideak ustiatzeko gure moduetan eta ohituretan aldaketa sakonak egitea, atzera bueltarik ez duten ondorioak saihesteko. Jasangarritasuna eta karbono baxuko ekonomiaranzko trantsizioa angelu eta sektore guztietatik jorratu beharreko helburuak dira.

Eraikinak, eta, zehatzago, etxebizitzak energia asko kontsumitzen duten eta atmosferara CO₂-a isurtzen duen sektorea dira, eta, hala ere, badaude irtenbideak eragin negatibo hori arintzea ahalbidetzen dutenak, lortu dugun bizi kalitateari uko egin gabe. Etxebizitzen sektoreak energia kontsumitzen du tenperatura egokia mantentzeko (beroa eta hotza), ur bero sanitarioa edukitzeko, gailu elektrikoak martxan jartzeko, eta, batzuetan, sukaldean aritzeko hainbat iturritarako. Etxebizitza bakoitzeko unitate kontsumoa baxua da, baina datuak gehituz gero, sektore hau da kontsumo energetiko orokorreko nagusietako bat. Era berean, energia horren jatorria, ehuneko altu batean, energia ez-garbia da.

Azken batean, hiriak ekonomia zirkulareranzko trantsizioaren motor potentzialak¹ dira, bai sortzen duten kontsumo energetikoaren bolumenagatik, bai hondakinen produkzioagatik eta berotegi gasen isuriagatik. Gainera, zeregin garrantzitsua dute, prozesu zirkularrak (arazoen jatorria eta irtenbidea) eta katalizatzaile zirkularrak (trantsizio zirkularreko liderrak) baitira. Ekonomia zirkulareranzko trantsizioak², era berean, berrikuntza sustatzen du, eta, ondorioz, lehiakortasuna areagotu eta lanpostu berriak sortzen ditu. Hiriaren garapena jasangarritasun ekonomiko, sozial eta ingurumenekoan oinarritu beharko litzateke. Hiri zirkularren eredia funtsezkoa da horretarako.


Nafarroako Foru Komunitateak ekonomia jasangarriranzko trantsizioaren parte izateko asmoa sendoa dauka, Europar Batasunak sustatutakoaren ildotik. Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak etxebizitzaren gaineko eskumena duen departamentuak eta Nasuvinsa enpresak ekintza plan hau garatu dute, trantsizio hori lortzeko politikak hobetzeko. Horretarako, eraginkortasun energetiko handiagoa lortuko duten, eta, beraz, iturri horien eskaria murriztuko duten ekintzak sustatuko dituzte.

Plana, zehazki, *LC Districts: towards low carbon districts* proiektuaren esparruan egin da. Interreg Europe proiektu bat da, eta esperientziak eta hausnarketak trukatu nahi ditu, administrazioek karbono baxuko ekonomia bateranzko aldaketa sustatzeko orduan aurkitzen dituzten zailtasunetarako irtenbideak bilatze aldera. Eskualdeko eragile garrantzitsuenen lankidetzaren eta inplikazioaren barruan jardunbide onak aztertzea da dinamikaren muina.

¹ Iturria: Circular City Guide.

² Iturria: The 15 circular steps for cities. European Investment Bank.

Partzuergoa Europako 5 eskualdek osatzen dute, eta, bertan, guztira 7 bazkide daude, lan eremu desberdinetakoak: unibertsitateak, agentzia energetikoak, administrazioko organoak....



Plan hau mundu mailan COVID-19ak eragindako pandemiaren krisian garatu da. Ondorioz, aldatzeko premia handiagoa da, bi arrazoiren zioz: batetik, ekonomia suspertzeko beharragatik, eta, bestetik, Europa berdeago bat lortzeko ekintzak berriz abiarazteko beharragatik. Hori dela eta, EBk funts ugari jarri ditu martxan, prozesu hori azkartzeko.

Hala, agiri honetan hainbat ekintza erraz jaso dira, garrantzi handia dutenak estrategiak ezartzeko orduan, Nafarroako Foru Komunitateak karbono baxuko ekonomiaranzko trantsizioko helburuak lor ditzan, etxebizitzaren birgaitze lanetan inbertsio pribatua sustatuz, administrazioen babesarekin.

1 I. zatia – Testuingurua

1.1 Informazio orokorra

1-1 taula. Informazio orokorra

Proiektuaren izena	<i>Towards low carbon city districts through the improvement of regional policies</i>	
Akronimoa	LC DISTRICTS	
Inplikatutako erakundeak	Nafarroako Gobernua NASUVINSA	
Herraldea	Espainia	
NUTS2 eskualdea	Nafarroako Foru Komunitatea	
Harremanetarako pertsonak	NG NASUVINSA	Javier Etayo Lezáun Beatriz San Martín Zaragüeta
Helbide elektronikoak	NG NASUVINSA	javier.etayo.lezaun@navarra.es bsanmarz@nasuvinsa.es
Telefono zenbakiak	NG NASUVINSA	+34 848 426 812 +34 848 420 648

1.2 Politiken esparrua

1.2.1 Tresna politikoa

Eskualdeko Ekintza Planak honako eremu hauetan izanen du eragina:

- Hazkunderako eta enplegurako inbertsio programa
- Lurralde lankidetzarako programa europarra
- Eskualde garapenerako beste tresna politiko bat

Tresna politikoen izena:

*Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa, Suspertze eta Erresilientziarako
Plan Nazionalaren arabera*

eta


322/2000 FORU DEKRETUA

Eskualdeko ekintza plan honetan aipatzen den tresna politikoa Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa da, NextGenerationEU aterkiaren barruan sartzen dena. Interreg Europe LC Districts proiektuaren proposamena idazteko unean, jorratu beharreko tresna PO EGEF 2014-2020 Nafarroa izanen zela adierazi zen. Hala ere, agiri hau idazteko unean azken programa hori amaituta zegoenez, lotura hura aldatzea komeni da. Programa berri hau, NextGenerationEU, aukera bakarra da gure hiriak diseinatu eta eraldatzeko, eta, gainera, plan honetan aurreikusitako ekintzek eta haren helburuek bat egiten dute programa horrekin.

Era berean, eskualdeko politikako tresna bat aldatu eginen da, bere xedea sustatu eta hobetzeko: "322/2000 FORU DEKRETUA, URRIAREN 2KOA, NAFARROAKO GOBERNUAK EMANA, ERAIKINAREN LIBURUA ARAUTZEN DUENA". Dekretuak eraikinaren azken erabiltzaileei hainbat agiri tekniko emateko prozedura arautu eta nahitaezko bihurtzen du eraikin berrietan. Agiri hori "Eraikinaren Liburua" da. Bada, aldaketa honen bidez, agiri hori lehendik eraikita dauden eraikinetara ere hedatuko da. Tresna hau ahalik eta gehien aprobetxatzeko behar diren aldaketak sartzeko aukera bat da.

1.2.2 Nafarroako espezializazio adimentsuaren estrategiarekiko lotura

Eskualdeko Ekintza Plan honek lotura estua dauka Nafarroako Foru Komunitatearen espezializazio adimentsuaren estrategiarekin (S₃, ingelesezko siglen arabera: Smart Specialization Strategies)³. Estrategia horren arabera, plan honek honako puntu hauek jorratuko ditu:



Eskualdeko eragile gakoak inplikatu dira, berrikuntza eta esperimentazioa sustatu ahal izateko. Gainera, estrategiak berak dioten bezala, Europako ingurumen eta gizarte mailako erronka handiei aurre egiteko saiakera egingen da (horien artean daude energia eta klima aldaketa), bai eta sektore publikoak garapen ekonomikoaren esparruan duen zeregina modernizatzeke eta gobernantza globalaren erronka berrian lan egiteko saiakera ere.

³ https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/participacion/estrategia_de_especializacion_inteligente_de_navarra.pdf

1.3 Eskualde Diagnostikoaren ondorio nagusiak

1.3.1 Datu esanguratsuak gure eskualdean:



1.3.2 Jarduera esparrua.

Nafarroako Foru Komunitateak gaur egun parke neutroa lortzeko dituen programak, ekimenak, egiturak eta tresnak hainbat dira, plan estrategikoetatik hasi eta nahitaz bete beharreko araudira arte.

- Klima aldaketari buruzko bide orria
- Plan energetikoa
- Etxebizitza Plana: eraikinaren ebaluazio txostena, ziurtagiri energetikoa
- Alkatetzen ituna
- NSH

Trantsizio hau arautzen duten planak eta printzipioak



- Eraikuntza: Zuzentarau europarren transposizioaren ondorioz, Eraikuntza Kode Tekniko berri bat ezarri da, zeinak eraikin berri guztiei eskatzen baitie kontsumo ia deusezak izatea.
- Etxebizitza Legea: **10/2010 FORU LEGEA**
- Lurralde eta Hiri Plangintzako Legea; **35/2002 FORU LEGEA**

Araudia



- Birgaitze lanetarako laguntzak. Egonkorak denboran. 2008ko irailetik, eraikinetan jarduerak sartu dira, eraginkortasun energetikoa hobetzeko.
- Sektoreko laguntzak (IDAE).
- Etxebizitza publikoa birgaitzeko plana.
- EEBB bulegoen eta herritarren arretarako bulegoen sarea.
- Irismen handiko proiektu europarrak: Efidistrict, Lourdes Renove eta Sustainability, eraikinen birgaitze lanetan eragina duten jarduerak, eraginkortasun energetikoko neurriak, bero sareak berritu eta handitzeko ekintzak eta energia berriztagarriak sartzeko jarduerak.

Birgaitze eraginkorra. Nafarroan, parke eraikia berritzera bideratu dira ahaleginak



- GIS ataria: etxebizitza parkearen zaurgarritasun ekonomiko eta energetikoaren bisorea / diagnostikoa.
- Informazio energetikoaren sistema: parke eraiki publikoaren kontsumo energetikoaren informazio sistema.
- EET: Eraikinak Ebaluatzeko Txostenen erregistroa.

Beste tresna batzuk



1.3.3 Diagnostikoaren garapena eta ondorioak

Nafarroan, parke eraikiaren CO₂ isurien eraginak Europako batez bestekoak baino nabarmen baxuagoak dira, batez ere gure klimagatik. Era berean, herritarren artean etxebizitzak birgaitzeko kultura zabalduta dago, etxebizitza eta eraikinak birgaitzeko bulegoen (EEBB) sareak urteetan egindako lanari eta eskualde laguntzen esparru egonkorrari esker. Prozesu hau hobetzen joan da, Esku-hartze Globaleko Proiektuak (EGP) bezalako figurak sartuta.

Hala ere, klima eraginaren larritasuna ikusirik, parkeak bizkortu egin behar du bere eraldaketa prozesua, isuriak zero izan daitezen hurrengo 30 urteetan. Abiapuntuko egoera aztertu eta baloratzean, honako ondorio hauek atera ziren Nafarroak karbono baxuko edo deusezko etxebizitza parke bat lortzeko bidean gainditu behar dituen zailtasun edo erronkei buruz:

Gizarte esparrua: Informazio eta aholkularitzako zerbitzuak eta metodologiak

- Biztanleriaren aldetik, onuren ezagutzarik eza
- Ezagutza teknikorik eza / talde teknikoak eskuratzeko ezagutzarik eza
- Eraikinaren ezaugarrien ezagutzarik eza
- Finantzaketa

Eskaintza esparrua: Informazio eta kudeaketako egiturak udalerrri eta auzoetan

- Birgaitze jarduera sustatzeko beharra maila guztietan
- Koordinazioko erakunderik eza
- Esku-hartze globaleko proiektuen definizioa
- Prestakuntza duten talderik eza
- Egindako proiektuen ebaluazioa, eraginkortasun energetikoaren eta jasangarritasunaren arabera
- Egindako esku-hartzeekin lotutako eraginkortasuna egiaztatze beharra

Esparru estrategikoa eta arau esparrua: Gobernantza eta politika eta programen kudeaketa

- Zeharkako ikuspegi integratzaileak eza
- Abiapuntu diagnostikorik eza
- Argitasun falta energien gaian eta berriztagarrien sarreran nahitaez bete beharreko araudiaren gainean
- Epe ertain eta luzeko strategiaren planifikazioa
- Inplikaturako administrazioen artean koordinaturako laguntzen esparrua
- Finantzaketa eredu berrien definizioa
- Energia seguru, jasangarri eta irigarriaren (ekonomikoki) hornidura
- Ingurumenean, gizartean eta ekonomian eragin positibo handiagoa duten esku-hartzeak identifikatzeko plangintza

Gure komunitateak hainbat neurri abiarazi nahi ditu, 3 motatan sailkatzen ahal ditugunak, trantsizio hori lortzeko egungo oztopoak gainditzeko:

Hezkuntza, prestakuntza, informazioa eta sentsibilizazioa

- Gizartearen kontzientzia falta da eremu guztietan ahulgune moduan nabarmentzen dena. Epe labur, ertain eta luzean jorratu beharreko erronka da.

Antolaketa, koordinazioa eta eskaintako zerbitzuak

- Azaldu denez, nahiz eta administrazioak ekintza isolatuak egin dituen sektorearen deskarbonizazioa lortzeko ahaleginean, lerro estrategiko komun bat definitu behar da, erakunde zentralizatzaile batek erraztu ditzan inplikaturako eragile guztien arteko komunikazioa eta aholkularitza.

Arau esparruaren garapena eta egokitzapena

- Administrazioak deskarbonizazioan zeregin proaktiboa izatea beharrezkotzat jo da. Horretarako, neurri handiagoan arautu beharko lirateke jarduera energetikoak, eskatutako gutxieneko baldintzetan nahitaezkotasuna ezarri, komunitate energetikoen finantzaketa eta sorrera erraztuz edo/eta herritarrak bultzatuz energia jasangarriko proiektuak egin ditzaten, eskatutako laguntzak lortuko diren helburu energetikoekin lotuz.

2 II. zatia – Metodologia

Nafarroako Foru Komunitaterako ekintza planaren garapena nazioarteko lankidetzan oinarritu da, LC Districts proiektuko bazkideen bidez eta zuzenean nahiz zeharka gure eskualdearen deskarbonizazioan esku hartzen edo laguntzen duten eragile nagusien partaidetzaren bidez.

2.1 Eskualde arteko ikuspegia eta ondorioak

Interreg programa herrialde europar desberdinetako eskualdeen arteko trukean oinarritzen da. Izan ere, eskualde guztiek antzeko erronkak dituztela ulertzen du, eta, beraz, ideia onak eta irtenbide egingarriak partekatzen ditu.

Interreg Europe LC Districts proiektu europarreko bazkideen arteko truke hori diseinatzeko, bisitak egin ziren 5 eskualdetara. Eskualde bakoitzeko bazkideek 2-4 jardunbide on identifikatu eta erakutsi dituzte (proiektuak, estrategiak, tresnak...), eraikuntza berriaren edo birgaitze eraginkorraren gainean. COVID-19aren osasun krisiaren ondorioz, Nafarroara egindako bisita soilik gauzatu ahal izan zen aurrez aurre (2019ko iraila). Gainerako eskualdeetarako bisitak online egin ziren: Marche-Italia (2020ko urria), Småland-Suedia (2020ko abendua), Zlín-Txekiar Errepublika (2021eko urtarrila) eta Kroazia (2021eko martxoa).

Bisita birtualetan, jardunbide on horiei buruzko dokumentazioa eta informazioa biltegi birtual batean bateratu da, eta, ondoren, online biltzar baten bidez, eskualde horretako bazkideak jardunbide on hori azaldu du, bertan parte hartu duten adituen laguntzarekin.

Aurrez aurreko nahiz online bisitetarako, eskualde bakoitzeko eragile esanguratsuak bertan egon dira, hots, jardunbide horiek ongi baino hobeki ezagutzen zituzten pertsonak. Gainera, partzuergoak horien gainean gidoi baten arabera egin duen balorazioan ere parte hartu dute.

Nahiz eta 15 jardunbide on izan diren sakontasun handiagoz aztertu direnak, bazkideek beste jardunbide on batzuk ere partekatu dituzte, LC Districts proiektuko jardunbide onen gidan agertzen diren 25etara iritsi arte.

Aurreikuspenen arabera, eskualde guztietan daude irtenbideak: epe labur edo luzeko estrategiak, egin beharreko jarduerak neurtzen edo ebaluatzen laguntzen duten tresnak, edo beste jarduera batzuetarako eredu diren proiektuak.

2-1 taula. Aztertutako jardunbide onak

Eskualdea	Proiektuak	Estrategiak	Tresnak
NAFARROA (Espainia)	LOURDES Renove eta EFIDISTRICT : berrikuntza energetikoak auzoetan, energia berriztagarriak sartuz berogailu zentralen eta auzoko bulegoetan, sustatzaile pribatuei prozesu guztian laguntze aldera.	NSH : Babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntza, eraginkortasun energetikoko estandar altuenekin.	
MARCHE (Italia)		Joint SECAP : Antzeko ezaugarriak dituzten udalerrien baterako planak egitea.	ITACA : jasangarritasuna baloratzeko tresna, eraikinen eta hiriguneen ziurtagiriak egiteko: neurketa parametroen homogeneizazioa.
SMÅLAND (Suedia)	READY : multzoa berritzea, irtenbide berritzaileen eta erabiltzaileak kontzientziatzeko prestakuntza eta plataformaren bidez, etxebizitzaren erabilera hobetuz. Växjöko geltokia eta udal berria : hiriko eraikin garrantzitsua, jasangarritasunaren aldeko apustu altua egin duena.	Vickleby : Estandar energetiko altuko etxebizitzaren eraikuntza, tokiko erakuntza materialekin eta itxura tradizionalarekin.	Tresna informatikoa eraikinaren diseinuan hainbat eraikuntza aldagai aurreikusteko eta irizpide askoko erabakiak hartzea sustatzeko, inplikaturako alderdien interesen arabera (erabiltzaileak, jabetza, diseinatzailea...).
ZLIN (Txekiar Errepublika)	Uherské Hradištěko ospitale guneko eraikin eta instalazioak berritzea: 8 neurri integratu, eskari altuko gune baten kontsumo energetikoa murrizteko. Holešoveko suhiltzaileen parkea eraikitzea, Passivhaus estandarren arabera	Ekintza plan energetikoa eta haren finantzaketa : laguntza eraikinak energetikoki hobetzeko ezarpenen finantzaketa bilatu eta diseinatzeko orduan.	
KROAZIAREN ipar- mendebaldea	Zapresic barrutiko berogailuaren berreraikuntza: eskala handiko berritze lanak, prestakuntza espezifikoarekin eta bideragarritasun azterlanarekin batera eta energia berriztagarriak sartuz	Karlovakeko hiri plangintzan irizpide jasangarriak sartzea. Lurralde Inbertsio Integratuko funtsak erabiltzea proiektu handietarako, esaterako Zagreb barrutiko berogailua berritzeko.	

Azterketetatik hainbat ikaskuntza eta ideia atera dira, politikak diseinatzeko orduan kontuan hartu behar direnak:



Eraikuntza eta birgaitze proiektuak

- material jasagarrien erabilera (egurra, tokiko materialak) eta beren bizi zikloaren azterketa
- uraren berraprobatxamendua
- energia berriztagarriak in situ sartzea
- eraikin batez haragoko eskala
- erabiltzaileen iritzien txertaketa
- hobekuntzen azterketa eta eraikinen jarreraren adierazleen eta monitorizazioaren ezarpena
- sektorea modernizatzeko eta teknologia berriak erabiltzeko prestakuntza eta trebakuntza



Auzoko berogailuak, DH

- biztanleria dentsitate altuko guneetako ezarpena
- berogailu, izozkailu eta ur bero sanitariorako erabilera
- zerbitzua eraikin publiko eta etxebizitzetara
- energia berriztagarrien bidezko energiaren sorrera
- bideragarritasun azterketen garapena, horiek ezarri eta inbertsioaren itzulkina kalkulatzeko
- prestakuntza espezifikoak



politikaren helburuak eta estrategiak

- mendetasun energetikoaren jaitsiera
- eraginkortasun energetikoaz haragoko helburuen bilaketa
- administrazioen arteko lankidetzeta eta kooperazio publiko-pribatua
- erabiltzaileen jarreraren eragiteko bitartekoak
- hiri plangintzan irizpide jasagarriak sartzea
- proiektuen egitura finantzarioaren definizio argia
- sektoreak ekonomia eta enplegua sortzeko duen ahalmenaren garrantzia, batez ere krisi garaietan, gaur egungo kasuan bezala

2.2 Eskualdeko ikuspegia. Stakeholderrak

Eskualde arteko trukeak ez dauka ibilbiderik, eskualde bakoitzak bere “*stakeholderrak*” inplikatzeko ez baditu behintzat: termino anglosaxoi hori erabiltzen da gaien garrantzia duten eta arlo horretan egon daitezkeen aldaketen eragina jasan dezaketen talde, pertsona edo elkarteak identifikatzeko.

Gure eskualdearen lehentasunezko helburua etxebizitza parkea izan da. Nafarroan, parke eraikiaren % 51 1980 baino lehenagokoa da, hots, eraikinak isolatzea eskatzen zuen araudirik ez zegoeneko.

Ondorioz, gure eragile esanguratsuenen taldea identifikatzean, etxebizitzan esku hartzen duten eragileak hartu ziren kontuan. Taldetik kanpo eragilerik ez uzteko, helize laukoitzaren eredu baliatu zen, parke eraikiaren deskarbonizazioan esku hartzen duten 4 alderdiak jorratzeko:

2-2 taula. Inplikaturako eskualde eragileak

	Sektore publikoa	Sektore pribatua	Hezkuntza	Gizartea eta elkarte zibilak
Eraikuntza eta berrikuntza	<ul style="list-style-type: none"> - Nafarroako Gobernuoko Etxebizitza Zerbitzua - NASUVINSA - Etxebizitza eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoen sarea (EEBB) 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala - Nafarroako Aparailari eta Arkitekto Tekniko eta Eraikuntza Ingeniarien Elkargo Ofiziala - Monente Arquitectos - Construcciones Domeño - Urrutia Arquitectos 	<ul style="list-style-type: none"> - Fundación Laboral de la construcción - Nafarroako Unibertsitatea. Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa 	<ul style="list-style-type: none"> - Finka Administratzaileen Elkargoa
Sektore energetikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Nafarroako Gobernuoko trantsizio energetikoko zerbitzua - Nafarroako Erdialdeko tokiko ekintza taldea - Iruñeko udal eragile energetikoa 	<ul style="list-style-type: none"> - AIN - CENER 		
Hirigintza plangintza	<ul style="list-style-type: none"> - Iruñeko Udala - Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala - Monente Arquitectos - Urrutia Arquitectos 	<ul style="list-style-type: none"> - Nafarroako Unibertsitatea. Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa 	
Finantza-keta	<ul style="list-style-type: none"> - Europako funtsen zerbitzua 	<ul style="list-style-type: none"> - Banco Santander - CaixaBank - Nafarroako Rural Kutxa 		<ul style="list-style-type: none"> - Finka Administratzaileen Elkargoa

Era berean, eragileak 3 motatan kategorizatu dira, ESKAINTZAN, ESKARIAN eta ADMINISTRAZIOAN duten eragin mailaren arabera:

Gizarte esparrua - Eskari taldea:

- Informazio eta aholkularitza zerbitzuak eta metodologiak; energia eraginkortasuna eta hornidura hobetzeko ekintza aktibo eta pasiboen sustatzaile eta onuradunek osatutako taldea.

Esparru teknikoa - Eskaintza taldea:

- Udalerrri eta auzo mailako informazio eta kudeaketa egiturak; ikuspegi teknikitik zerbitzuak eskaintzen dituzten eragileek osatutako taldea, hala nola arkitektoek, ingeniariak eta abarrek, batez ere sektore pribatukoek, baina baita publikoek ere.

Esparru estrategikoa eta arau esparrua - Administrazio taldea:

- Politiken eta programen kudeaketa eta gobernantza; erronkak Administrazioaren ikuspegitik aztertzen dira. Sektore publikoko hainbat zerbitzuek osatutako taldea.

Eragileekin egindako lana honako hau izan da:

1. Eskualdeko diagnostiko bat idazteko ekarpenak:

2020ko otsailean egindako lan jardunaldi baten bidez, eragileek ikuspegi analitikoagoa eman zuten karbono isurietan neutroa den parke eraiki baterako trantsizioa dinamizatze eta hobetzeko zailtasunei eta konponbide posibleei buruz.

Lan hori, zehazki, aurretik adierazitako 3 taldeetan egindako balorazioaren bidez gauzatu zen: i) eskaria eragozten duten erronkak edo zailtasunak, ii) eskaintzaren garapena eragozten dutenak eta iii) administrazio publikoek merkatu hori dinamizatzea eragozten dutenak. Horiek lehenestea izan zen emaitza, kausak eta konponbide posibleak adierazita. Ondoren, azaleratu ziren konponbideak lehenesteko lana ere egin zen.

Prozesu honetatik diagnostikoa egiteko ondorio nagusiak atera ziren, 1.3. puntuan laburbilduta ageri direnak.

2. LC Districts proiektuko bazkideek aurkeztutako jardunbide onen azterketa eta balorazioa.

“Bisita birtualetan” zehatz azaldu ziren jardunbide onak, online bileren bidez. Bertan, jardunbide on horien arabera aukeratu genituen eragile zehatzek parte hartu zuten (ikus “eskualde arteko ikuspegiaren” ataleko taula).

Eragile horiekin aurrez aurreko bilerak egin ziren, lankidetzarako bilerak prestatzeko. Bilera horietan, bazkide anfitrioiak emandako informazioa aztertu zen, bileran azaldu beharreko

zalantzak planteatu ziren, eta jardunbide ona gure eskualdera transferitzearen (aldaketekin edo aldaketarik gabe) interesa eta aukera baloratu ziren.

2.3 Eskualdeko hausnarketa estrategikorako prozesua

Hausnarketa estrategikoaren prozesua matrize batean oinarritu da, gure eskualdean aurkitutako erronkak jasoz ardatz batean eta irtenbideak bestean. Erronkak eta konponbideak bat datozenean, interkonexio bat sortzen da, eskualdeko ekintza plan honetan garatu beharreko ekintzak idazteko oinarria izanen dena.

Identifikatutako erronken jatorria

- Eskualdearen diagnostikoa
- Bazkideen ebaluazioa
- LC Districts proiektuko eskualde diagnostikoen laburpenak
- Esku hartzen duten eskualdeko eragileek berek hautemandako erronkak

Aurkitutako irtenbideen jatorria

- Online bisitetako jardunbide onak
- Interreg ikaskuntza plataformako jardunbide onak
- Eskualdeko stakeholderrekin egindako bileretan antzemandako irtenbideak

Erronkak dira espero ziren emaitzak lortzeko aurkitu diren zailtasunak, aldaketa beharrak, hobekuntza posibleak, etab. Erronka horiek 2.2. atalean aipatutako 3 ikuspegietatik sailkatu dira: gizarte esparrua, eskaintza esparrua eta esparru estrategikoa eta arau esparrua.

Irtenbideak dira, bestalde, neurri berriak, ekintza berriak, gobernantzako hobekuntzak, lortu nahi diren helburuak lortzeko modu berriak eta abar. Jardunbide onak (ikus 2.1. puntuko taula) banakatuta jaso dira, eragile garrantzitsuekin batera aztertuz, gure eskualdearen erronkak konpontzen laguntzen duten alderdiak indibidualizatzeko eta ezartzeko.

Identifikatutako erronketarako konponbideen rankinga lortzeko, zenbakizko balio bat esleitu zen irtenbide bakoitzak erronka bakoitzari egiten dion ekarpenaren arabera.

Emaitza matrizean islatzen da. Bertan, identifikatutako erronken eta horien balizko irtenbideen arteko lotura ikus daiteke, baita duten garrantzi maila ere, 1etik 5era zenbakituta, 5a izanik pisu handiena duena.

Eronka antzemateko jatorria	Arloa	Eronka	MARCHE (ITALIA)		SMALAND (SUEZIA)							ZLIN (TXEKIAR ERREPUBLIKA)			KROAZIA			ANTZEMANDAKO BESTE IRITENBIDE BATZUK						
			Hiri plangintzarako eraginkortasunaren gaineko jasangarritasuna (TACA URBAN)	Parametrien homogeneizazioa (TACA)	Klima eta Energia Jasangarriko Plan Integratua. Karbono baxuko trantsizioan herririkikiak sartzea	Maizteroen jarraian eragileak: ezebeztazaren erabilera eraginkortasuneko plataforma, monitorizazioen bidez, jarraiek aldatuz	Biztanleentzako prestakuntza balerak	Administrazioak zuzendutako proiektu integratuen erabilera, besteak beste irtenbide berrien laborategi bezala	Erakiri publiko zaharkituak berrabiliki eta birgaltzea (eraginkortasun energetikoa), gizaite atokairuko ezebeztazarako	Erakiri berezi adierazgarria / eredugarria / erreferentia jasangarritasunaren. Irudi publikoa.	Tokiko materialak eta diseinu arkitektoniko tradizionalki erabiltzea, eraginkortasun energetikoko estandar altua duteak	Inplikatuak eragileen (erabiltzaileak/jabedza) lehenetsunak, sartzea berreraikituzako irtenbidean erabakiak hartzeko (metodologia)	IKT teknologiak erabiltzea erakuntza irtenbideen gaineko erabakiak hartzeko	Zeharkako organo koordinatzaile eta planifikatzailea	Birgiltutako erakirien monitorizazioa. Ikus parameitroak	Konsumo energetiko altuko erakirien birgaltzea	Konsumo energetiko ia deusezeko estandar duten erakiri publiko berriak (suhiltzaileen estazioak)	Prestakuntza teknikoa, ekonomikoa eta komunikatiboa, stakeholderrei zuzendua	Hiria birsortzeko proiektu handien finantzaketa, EGEF funtsetan bidez	Dietan energia beriztagarriak eta kontratu eredu beriztalak sartzea	Hiri plangintza plan energetiko eta klimatiko ezartzea	Hiritar korporatibuen finantzaketa duten komunitate energetikoak	GIS tresna	Zerbitu Energetikoko Enpresak
Eskualdearen diagnostikoa	(i)	Gizartea	Biztanleriaren aktibitate onuren ezagutzariki eza		3	3	5	2			2	2	3							1				
	(i)	Gizartea	Ezagutza teknikorik eza / talde teknikoak eskuratzeko ezagutzariki eza				2	1			2	2										0		
	(i)	Gizartea	Erakirien ezaugarrien ezagutzariki eza	1		5	1				2		3											
	(i)	Gizartea	Finantzaketa				2					1									1	5		
	(ii)	Zerbitzuak	Gobernantza ereduaren definizioa	2		4						3									2			
	(ii)	Zerbitzuak	Birgaltze jardura sustatzeko beharra maila guztietan	2		3		3	3	2	1	3												
	(ii)	Zerbitzuak	Koordinazioak erakunderiki eza									5												
	(ii)	Zerbitzuak	Esku-hartze globaleko proiektuen definizioa	4																				
	(ii)	Zerbitzuak	Prestakuntza duten talderiki eza	1				4	1	2		3	2		1	2	5							
	(iii)	Estrategia	Zeharkako ikuspegi integratzaileari eza	2		4		1				5										2		
	(iii)	Estrategia	Abiapuntuko diagnostikoriki eza	3		3							2									5		
	(iii)	Estrategia	Argitasun falta energien gainan eta beriztagarrien sarreran nahitaez bete beharreko araudiaren gainean									2									4			
	(iii)	Estrategia	Epe ertain eta luzeko estratagiaren planifikazioa	3		3						3	2								5	3		
(iii)	Estrategia	Inplikatuak administrazioen artean koordinatutako laguntzen esparrua									3									1				
(iii)	Estrategia	Finantzaketa eredu berrien definizioa					2				2									3	5			
Bazkideen diagnostikoa	(iii)	Estrategia	Energia seguru, jasangarri eta irisgarriaren (ekonomikoki) homidura																	3	3			
	(iii)	Estrategia	Ingurumenaren, gizartearen eta ekonomian eragin positibo handiagoko duten esku-hartzeak identifikatzeko plangintza								2		3								5			
	(iii)	Estrategia	Lankidetzara publiko-privatua					3												5	5			
Aurkeztutako jardunbide onen ebazitzeko	(ii)	Zerbitzuak	Egindako proiektuen ebaluazioa, eraginkortasun energetikoaren eta jasangarritasunaren arabera								2										4			
	(ii)	Zerbitzuak	Egindako esku-hartzeekin lotutako eraginkortasuna egiaztatzeko beharra								2		5											
	(iii)	Estrategia	Egindako proiektuen errentagarritasuna ezagutzeko beharra: kostua-eraginkortasuna								2													
	(iii)	Estrategia	Esku-hartze orokorretarako guneak hautatzeko irizpiden ezarpena																					
(ii)	Zerbitzuak	Ur beroaren sarrera D-Hetan, etxean erabiltzeko																						
Eronka/irtenbidea batura			13	5	20	8	12	16	4	6	2	2	13	33	17	4	2	5	11	13	12	15	13	7

Hona hemen puntuaziorik handiena lortu duten konponbideak: (1) zeharkako organo koordinatzaile bat sortzea, (2) Baterako ekintza planak egitea eta (3) egindako jarduerak monitorizatzea.

Alde batetik, pobrezia energetikoaren ondorioz dagoen gizarte arraila murrizteko, hainbat irtenbide aurkitu dira; besteak beste, herritarrak heztea, prestatzea, informatzea eta sensibilizatzea, etxebizitzak modu eraginkorrean erabiltzeko, energia berriztagarriak erabiltzeko eta eraikin positiboak eraikitzeko. Irtenbide posibleen artean, prestakuntza tailer zuzenduak nabarmentzen dira, baita etxebizitzaren erabilera eraginkorrerako plataforma baten ezarpena ere, egindako monitorizazioen azterketatik abiatuta jokabideak aldatuko dituen.

Bestalde, ezinbestekoa da ekonomia zirkularreko irizpideen erabilera sustatzea ekimen publiko eta pribatuko etxebizitzak eta eraikinak sustatzean, eraikitzean eta birgaitzean, eraikuntza jasangarriaren eta energia inpaktu txikiko materialen erabileraren bidez, eta, horrela, sektore berri bat sortzen eta sektore tradizional bat eskakizun berrietara egokitzen laguntzea. Premia horretatik ondorioztatzen da irtenbide posibleak honako hauek liratekeela: administrazioak eraikin bereziak sustatzea, tokiko baliabideak erabiltzea, barruti sareak berritzea, energia berriztagarriak sartzea eta kontsumo handiko eraikinak energetikoki birgaitzea.

Azkenik, azterketa horrek honako ondorio honetara garamatza: eraikuntza publikoaren eredia gizarte konpromiso bihurtu behar da, energia aurrezte eta eraikuntzaren kalitatean ahalik eta exijentziarik handiena lortzea herritarren eskubide bihurtuz. Hala bada, premia horri aurre egiteko irtenbide nagusien artean honako hauek daude: plan integratuak, parametroen homogeneizazioa, kudeaketarako eta monitorizaziorako tresna berrien ezarpena, eta ikuspegi estrategikoa duen erakunde koordinatzaile baten gainbegiratzea.

2.4 Antzemandako beharrian eta irtenbide nagusien zerrenda

2-3 taula. Antzemandako beharrian eta irtenbide nagusiak

Beharriana	Irtenbideak
Biztanleriaren konfiantzaren eta kontzientziazioaren igoera	<ul style="list-style-type: none"> Baterako ekintza planak Ohitura eta kontsumo energetikoak monitorizatzeko plataformak Informazio tailerrak Organo koordinatzailea
Birgaitze jardueraren sustapena	<ul style="list-style-type: none"> Baterako ekintza planak Organo koordinatzaile eta planifikatzailea Administrazioak zuzendutako proiektu integratuen erabilera Eraikin publiko zaharkituen berrerabilera
Taldean prestakuntza	<ul style="list-style-type: none"> Birgaitze energetikoko proiektu handietan prestakuntza tekniko, ekonomiko eta komunikatiboko alderdiak sartzea Administrazioak zuzendutako proiektu integratuak erabiltzea, besteak beste irtenbide berrien laborategia edo proiektu berritzaileak IKTak erabiltzea eraikuntzaren diseinuan
Plangintzaren hobekuntza, diagnostiko zehatzetik abiatuta	<ul style="list-style-type: none"> Organo koordinatzailea Baterako ekintza planak Hiri plangintzan irizpide jasangarriak sartzea (ITACA urban eta plan berdea) Diagnostiko tresnak (GIS)
Gobernantzaren eta finantzaketa esparruen definizioa	<ul style="list-style-type: none"> Organo koordinatzailea Baterako ekintza planak Proiektu handien finantzaketa EGEF funtsen bidez (lurralde inbertsio integratua) Kontratu energetiko berritzaileen ereduak eta komunitate energetikoak
Energia aurreztearen eta dirua aurreztearen arteko lotura. Garatutako proiektuen ebaluazioa.	<ul style="list-style-type: none"> Eraikinen monitorizazioa IKT teknologien erabilera Parametroen homogeneizazioa, jasangarritasuna baloratzeko ziurtagirien/tresnen bidez

Aurreko atalean aipatu den bezala, bazkideek azaltzen dituzten irtenbide batzuk lagungarriak dira karbono isurietan neutroa den parke eraiki baterako trantsiziorako planteatzen zaizkigun erronkak bideratzeko.

Zehazki, zeharkako organo koordinatzaile bat egotea eta baterako ekintza planak definitzea eta ezartzea bezalako irtenbideak errepikatzen dira gure erronkei aurre egiteko:

1. Zeharkako organo koordinatzailea

Gure eskualdeak gainditu beharreko erronkei buruz eragile taldearekin egindako azterketan, beharrezkotzat jo zen erreferentzia bakarra izatea, zeharkako ikuspegia edukitze aldera, hala errazagoa izanen baita administrazioen ahaleginak planifikatzea eta bateratzea.

Zlin eskualdeak egindako energia planaren eta haren finantzaketaren aurkezpenak ideia hori indartzen du, egiaztatu baitu energia agentzia bezalako erakunde batek gobernantza hobetzeaz gain, herritarrentzako informazio eta aholkularitza zerbitzuetan ere eragiten duela, eta profesionalentzako erreferente bihurtzen dela. Leihatila bakarra da, eta hiru eragile taldeek (sustatzaileak, eskaintza eta administrazioa) bertara jo dezakete zalantzak eta iradokizunak bideratzeko eta informazio garrantzitsu guztia lortzeko.

2. Baterako ekintza planak

Alkatetzen Itunaren baterako ekintza planak ere oso eraginkorrak dira zeharkako ikuspegi integratzailea lortzeko. Egoeraren diagnostikotik abiatzen dira, eta udalerriak dira birgaitze jarduera bultzatzen dutenak. Eraikin eta azpiegitura publikoetarako proiektatzen dituzten esku-hartzeaz gain, sektore pribatuko aldaketen eragile eta buru ere izaten ahal dira, hirien beharrak oso ongi ezagutzen baitituzte.

Era berean, azpimarratu nahi dugu proiektua garatu bitartean sortu den premia bat, eskualdeen arteko trukearen bidez nahiz stakeholderrek jardunbide egokiak aztertzearen ondorioz sortu dena. Premia horren arabera, egindako ezarpenak lotu nahi dira lortutako energia eta ekonomia aurrezpenarekin.

3. Hobekuntza jardueren monitorizazioa

Eskualdeen arteko esperientzia trukean, bazkide guztiek identifikatu dute egindako ezarpenak monitorizatzeko beharra, emaitzak baitira ezarpenen eraginkortasuna neurtzeko oinarria. Horri esker, politikak definitu eta hobetzen ahal dira, eta hornitzaileen ezagutza eta talentua areagotu. Emaitza positiboek eskaria sustatzen ere laguntzen dute, herritarrei ematen zaien informazioa hobetzen baitute.

2.4.1 Politiken diseinua, hausnarketa estrategikoaren ondorioetan oinarrituta

- ✓ Eskualdeko energia agentzia bat sortzea aspaldi identifikatu zen premia bat da, eta, hain zuzen ere, Nafarroako Foru Komunitatea da Espainian energia agentziarik edo eskualdeko antzeko erakunderik ez duen autonomia erkidego bakarra. Hala ere, erakunde publiko berri bat sortzea prozesu konplexua da, eta bi urte daramatza lan horrek martxan. Etorkizun hurbilean gauzatuko da, haren sorrera aurreikusita baitago gaur egun izapidetze fasean dagoen Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legean. Beraz, ekintza hori ez dagokio plan honi, baina garrantzitsua da kontuan hartzea eta koordinazio esparru egonkorra ahalbidetuko duen eta estrategiak bateratzea ahalbidetuko duen erakunde batek ekarriko dituen onurak baloratzea.

Baterako Ekintza Planak Esku-hartze Globaleko Proiektuak

- ✓ Baterako ekintza planak garatzen dugun interes handiena honako hau da: toki erakundeak dira beren hirietan eraldaketa prozesua bultzatzearen aldeko apustua egiten dutenak, hainbat arrazoi direla medio, besteak beste herritarrengandik gertu egotea, auzoak ezagutzea eta izapideak bizkor egitea, eskualde eremuko erakundeen aurrean. Era berean, toki erakundeek arautzen eta onartzen dituzte obra lizentziak, eta harreman estua dute EEBBekin eta informazio eta aholkularitza bulegoekin.
 - Toki erakundeak sustatzea proposatzen da, Esku-hartze Globaleko Proiektuen sustatzaileak izan daitezen, EBk eraikinen birgaitze energetikorako bideratuko dituen funtsen eraginkortasun handiena lortze aldera.

Eraikinen jarreraren ezagutza Eraikitako Eraikinen Liburua

- ✓ Eraikinen jarrera energetikoa hobetzeko ezarpenek hasierako unean emaitza onuragarriak eman behar dituzte, baina baita gero ere, denboraren iraganak horiek kaltetuko baititu ondoren mantentze lanik egiten ez bada. Era berean, eraikinei buruzko datu errealak lortzeak aukera ematen du jardueren eraginkortasunari eta kostu/aurrezpen erlazioari buruzko informazio baliotsua lortzeko, eta, hala, balio handiagoko ezarpenak arautu eta sustatu ahal izanen dira.

→ Nafarroan Eraikitako Eraikinaren Liburuaren⁴ figura orokortzea proposatzen da, etxebizitza parkearen informazio zehatza eta datu erantsiak lortzeko. Birgaitze planifikatua bultzatzeko tresna da, eskura dauden hobekuntza aukera guztiak kontuan hartzen dituen.

⁴ 2021eko abuztuan, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren lege zirriborro bat da.

3 III. zatia - Ekintzak

3-1 taula. Garatu beharreko ekintzak

Ekintza	Helburua
Esku-hartze Globaleko Proiektuak diseinatzeko toki erakundeentzako laguntzak	Eskariaren pizgarria (inbertsio pribatua) toki erakundeen eta birgaitze bulegoen bitartez bideratzea
Eraikitako Eraikinaren Liburua: erregulazioa eta sustapena	<p>Eraikinaren jarreraren eta hura hobetzeko aukeren datuak eskuratzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erabiltzaileari aukera ematea bere kontsumo energetikoa murrizteko • Administrazioari aukera ematea bere politikak hobetu eta eraginkorragoak bihurtzeko <p>Araudiak hala eskatzen dien eraikinetan Eraikitako Eraikinen Liburua edukitzeko betebeharra bete dadin sustatzea, eta gainerako eraikinetarako hori idatz dadin bultzatzea.</p>

3.1 1. ekintza: Esku-hartze Globaleko Proiektuak diseinatzeko toki erakundeentzako laguntza lerroa

Esku-hartze Globaleko Proiektuaren figura oso ongi baloratu da 2016an gure eskualde politikan sartu zenetik. Etxebizitza multzoen energia berroneratzerako aurreikusitako jarduketak biltzen dituen proiektua da (eraikinaren gainetiko eskala), eta ingurune horretan jarduteko ildo orokorrak biltzen ditu, barnean hartzen baititu hura osatzen duten eraikinetako bakoitzak jarraitu beharreko diseinua eta bertan aurreikusitako eremua. Horien bidez, parke eraikia birgaitzeko obretan eskalako ekonomiak lortu nahi dira, hots, alderdi homogeneo eta orekatua sustatu nahi da, bai eta eremua biziberrituko duen hiri berroneratze bat sartzeko aukera ere.

Araudia zabala da, eta, beraz, hainbat motatako EGPak jaso ahal izanen dira, udalerrri bat baino gehiago hartzen dituztenak barne.

3.1.1 Proiektuarekiko harremana

3.1.1.1 **Eragile esanguratsuenen ekarpenak:** eskualdeko diagnostikoa idazteko esanguratsuak diren eragileekin egindako azterketan, zenbait zailtasun eta erronka antzeman ziren:

- Birgaitze energetikoaren eskaria sustatzeko beharra
- EGPen dimentsio egokienaren definizio falta administrazioen aldetik
- EGPen diseinuaren kostua (obrak hasi aurreko kostua), diruz lagundu gabekoa

3.1.1.2 **Eskualde arteko ikaskuntza:** Nafarroak 3 jardunbide on aurkeztu zizkien proiektuko kideei, eta horietako bik auzo mailako esku-hartze globaleko proiektuak eta hiri berroneratzea jasotzen zituzten. Proiektuek interes handia piztu zuten bazkideen artean, eraikina baino eskala handiagoko ezarpenen egokitasunak barne.

Era berean, Marcheko bazkideak aurkeztutako baterako ekintza planaren jardunbide onaren balorazioan, baita oro har proiektuko gainerako eskualdeetan ere, toki erakundeek deskarbonizazioan duten zeregina eta trantsizio berdearen dinamizatzaile gisa duten ahalmena nabarmendu ziren. Era berean, taldekatzeko aukera nabarmendu zen, ekintza bateratuak egiteko.

3.1.2 Ekintzaren izaera

Toki erakundeei zuzendutako EGP idazteko laguntza lerro bat garatzearen helburua honako hau da: etxebizitza multzoak birgaitzeko sustapenak dinamizatzea, eta, aldi berean, eremu horietako sustapenen eraldaketa antolatua eta orekatua lortzea. Zehazki, teknikoki eta ekonomikoki eraginkorrak diren obrak sustatu nahi ditu, hiri diseinua hobetuz.

Hainbat etxebizitza eraikinetan batera jardutea onuragarria da, baina sustapena zaila da, sentsibilitate desberdina duten jabe askoren koordinazioa eskatzen baitu. EGP bat egoteak inbertsio pribatuaren eskaria sustatuko luke, eta, ondorioz, saihestuko egingen litzateke trantsizio berdearen erantzukizuna herritarrari helaraztea.


Gaur egun, figura horrek laguntza ehuneko handiagoa dakar eskualdeko dirulaguntzen programan, baina kostu hori ezin da onartu.

3.1.2.1 Tresna politikoaren hobekuntza

Europar Batasunak (EB) funts garrantzitsuen sorta bat zabaldu du osasun pandemiaren ondoriozko krisitik suspertu eta erresilientzia lortzeko. Berreskuratzeko edo suspertzeko helburuak lortzeko laguntza lerroetako bat etxebizitzak birgaitzea da, xede bikoitza duena: enpleguaren eta ekonomiaren hazkundera bultzatzea eta hiriak deskarbonizatzeko helburuetarantz aurrera egitea. EGPAk diseinatzeko laguntza lerroak eskala handiko birgaitzeak bultzatzea eta sustatzea dakar, bestela egin ezin izanen lirakekeenak.

Udalek ebaluazio txostenak eta GIS bisorea bezalako tresnak dituzte, etxebizitza parkearen egungo egoeraren ikuspegi orokorra ematen dutenak, haren kalteberatasun energetiko eta sozialari dagokionez. Gainera, eraikin bakoitzari buruzko informazio zehatza ere ematen dute. NASUVINSA enpresa publikoa Europako Inbertsio Bankuaren ELENA⁵ programaren PRIMAVERA proiektuaren esparruan garatzen ari den informazio eta aholkularitza bulegoak ere izanen dituzte.

3.1.2.2 Jarduerak



3.1.3 Inplikaturako eragileak

Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiari dagokio laguntza lerroa idaztea eta izapidetzea. Hala eta guztiz ere, aldez aurretik honako hauekin kontaktatu eta aztertuko da, hutsune posibleak aurreratzeko:


- Udalak
- Etxebizitza eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoa (EEBB)
- NASUVINSAREN eta PRIMAVERA proiektuaren informazio eta aholkularitza bulegoak
- Arkitektoak

⁵ ELENA: European Local ENergy Assistance

- Lanbide elkargoak

3.1.4 Kronograma

Deialdi bat abiarazteko izapideek gutxienez urte erdi irauten dute.



3.1.5 Kostua

Esku-hartze globaleko proiektuak egitearen kostua aldatu egiten da haren eskalaren, edukiaren eta konfigurazioaren arabera, baina proiektuko 15.000 € inguruko batez besteko kostua kalkula liteke. Diseinatu duen arkitektoaren ordainsariak eta administrazio kudeaketak osatzen dute kostua.

Kostu hori % goean lagundu nahi da diruz, eta, beraz, proiektu bakoitzeko 13.500 € izanen litzateke.

Deialdiaren diseinua eta kudeaketa Nafarroako Gobernuak barne langileekin egiten da (10.000 € inguru), eta kostu hori funts propioen kontura izanen da.

3.1.6 Finantzaketa

Laguntza lerroa EBko suspertze programetan sartuko da (EEM funtsak).

3.1.7 Arrakasta adierazleak

Honako adierazle hauek proposatzen dira:

3-2 taula. 1. ekintzako adierazleak

	Adierazlea	Helburua
Prozesua	Egutegia	Desbideraketa < hilabete 1
	Parte hartzea	5 eragile
Deialdia	Onuradunen kopurua	5
	Espedienteen kopurua	10
	Etxebizitzen kopurua	100

3.2 2. ekintza: Eraikitako eraikinaren liburuari buruzko eskualdeko araudiaren erregulazioa

Orain arte eta 2000. urtetik aurrera (Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko 38/1999 Legearen 7. artikulua arabera), eraikinen liburuak eraikuntza berriko edo birgaitze handiko eraikinetarako soilik eskatzen zen. Nafarroako Foru Komunitatean eskakizun hori 322/2000 Foru Dekretuaren bidez arautzen da, eta urriaren 30eko 1217/2000 Foru Aginduan dokumentu ereduak onartzen dira. Dokumentu honek eraikinaren eraikuntza ezaugarriei buruzko informazio guztia biltzen du, baita eraikinaren mantentze lanei eta instalazioei buruzkoa ere.

Gaur egun, eraikitako eraikinen liburuak estatu mailan arautzeko prozesuan dago. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak eskualdeko araudia idazteko adierazi die hala nahi duten autonomia erkidegoei, gutxienezko eduki bat jaso dezan. Liburu honek gaur egun 108/2014 Foru Dekretuaren arabera ezarrita dagoen Eraikinen Ebaluazio Txostena ordezkatzeko du; izan ere, atal gehiago ditu, eta horien artean hobekuntza plan bat nabarmentzen da.

Arau garapen hori aukera ona da tresna hori erabiliz planteatzen zaizkigun erronka batzuk bideratzeko; izan ere, liburuak, eraikinaren ezaugarriei buruzko informazioaz gain, hobekuntza plan bat ere sartzea eskatzen du, eta horri esker, jarduketak modu ordenatuan eta planifikatuan egin ahal izanen dira.

3.2.1 Proiektuarekiko harremana

3.2.1.1 Eragile esanguratsuen ekarpenak:

Erronkak eskualdeka aztertzean, eragile esanguratsuenek irtenbide posibleak aurkeztu zituzten, tartean honako hauek:

- Bai energia aurreztu eta isuriak murriztearen behararen gaineko gizarte kontzientzia hobetzeko, bai erabiltzaileek eraikinaren baldintza fisiko, sozial eta ingurumeneko gainean duten ezagutza hobetzeko. Proposatutako neurrietako batzuk honako hauek izan ziren: erabiltzaileei informazioa ematea erabilerarako eskuliburuaren, eraikinen ebaluazio txostenen, ziurtagiri energetikoen edo eraikinaren liburuaren txostenen bidez.
- Finantzaketari eta laguntza esparruari dagokienez, adierazi zen ezarpenen ondotik CO₂ isuriaren aurrezpenean lortutako emaitzari dirulaguntzak edo zerga kenkariak lotu behar zitzaizkiola.

3.2.1.2 Eskualde arteko ikaskuntza:

Proiektuko bazkideek gure eskualdeak aurkeztutako jardunbide onen gainean egindako balorazioetan, iruzkin guztiak positiboak izan ziren. Hala ere, birgaitze lanetan egindako hobekuntzen inbertsioaren itzulkina eta eraginkortasun energetikoa neurtu ez izanaren falta sumatu zuten. Hau da, eraikinak monitorizatzearen garrantzia nabarmendu zuten, errentagarritasunari eta eraginkortasunari buruzko benetako datuak ezagutzeko. Zlín eskualdeko Energia Agentziak (Txeikiar Errepublika), bere plan energetikoa eta finantzaketa

azaltzean, inplikazio handia erakutsi zuen arlo horretan. Hala, jardueren monitorizazioa aurreikusten zuten hainbat adierazle zerrendatu zituen.

Era berean, "Interface of Life" plataformak, READY jardunbide on suediarren barruan aurkeztutakoak, agerian jarri zuen garrantzitsua dela eraikineko erabiltzaileen jarrera azken kontsumo energetikoan.

3.2.2 Ekintzaren izaera

Nafarroak Eraikitako Eraikinaren Liburuaren edukiak eskualde mailan zehaztu nahi ditu, bai eta horiek ezartzeko nahitaezkotasuna eskatzeko irizpideak ezarri ere.

Eraikitako Eraikinaren Liburua profesional tekniko baimendun batek idatzi behar du, eta jabeek ordaindu behar dute. Araudiaren gainetik prozesua bizkortu dadin eta herritarren gaineko kalte hori arindu dadin, asmo horrekin lotutako laguntza lerro bat garatuko da hasiera batean.

Era berean, Eraikitako Eraikinaren Liburua idatziko duten langile teknikoek eraikinen jabeen informazio saioak egiteko betebeharra planteatu da. Saio horietan, liburuan jasotzen diren alderdiak azaldu beharko dira, bai eta eraikinean garatu daitezkeen hobekuntza posibleak ere, guztiak ere Liburuan behar bezala jasoko direnak. Hartara, birgaitze energetikoaren onuri buruzko informazioa emateaz gain, birgaitze lan horiek sustatu ere egingen dira.


Bestalde, Eraikitako Eraikinaren Liburuaren barruko "Hobetu daitezkeen alderdien" atalean, txosten diagnostiko bat egon dadila eskatuko da, digitalizazio eta monitorizaziorako aukerak jasotzeko.

Azkenik, Administrazioak, birgaitze laguntzak eskuratzeko, berariaz eskatuko du bai Eraikitako Eraikinaren Liburua edukitzea, bai eraikinaren kontsumo energetikoarekin lotutako oinarritzko datu ugari aurkeztea. Datu horiek izan beharko dira hasierako eta jarrera energetikoa hobetzeko jarduerak egin ondoko egoerari buruzkoak.

3.2.2.1 Tresna politikoaren hobekuntza


Ekintza hau ezartzean hobetuko den tresna politikoa eskualde araudia izanen da. Bertan, Foru Komunitatean Eraikitako Eraikinaren Libururako eskatuko diren baldintzak jasoko dira.

3.2.2.2 *Jarduerak*




Foru araudian sartzea

Foru araudian sartzea Eraikitako Eraikinaren Liburuko edukiak eta nahitaezko tasun irizpideak.



Laguntza lerroa

Laguntza lerro bat garatzea Eraikitako Eraikinaren Liburua eskuratu dadila sustatzeko. Dirulaguntza hori jasotzeko baldintza batzuk ezarriko dira: dibulgazio jardunaldiak, etxebizitzaren digitalizazio eta monitorizazio posibleari buruzko txostena, eta Administrazioari eman beharreko informazioa datuak gehituta eskuratzeko.



Neurrien eta laguntzen arteko lotura

Eraikitako Eraikinaren Liburuan jasotako hobekuntza neurrien eta egungo birgaitze laguntzen arteko lotura.


3.2.3 *Inplikaturako eragileak*

Eraikitako Eraikinaren Liburua araudi mailan garatzeko, honako hauen ezagutza teknikoa eta esperientzia eduki beharko da:

- Nafarroako Gobernua
- Etxebizitza eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoa (EEBB)
- Lanbide elkargoak
- Teknikariak
- Finken administratzaileak
- Herritarrak

Nafarroako Gobernuko Etxebizitza Zerbitzuko Eraikuntza Ataleko eta NASUVINSAko teknikariek bilerak eginen dituzte gaiaren gaineko adituekin.

3.2.4 *Kronograma*



3.2.5 Kostua

Araudiaren erregulazioari dagozkion jarduerak honako kostu hauek dituzte lotuta: langileen kostua (15.000 € inguru) eta plataforma informatikoaren aldaketa (a priori kalkulatzeko zaila da, baina 25.000 € ingurukoa izaten ahal da).

Eraikitako Eraikinaren Liburuak idazteko laguntza lerroak eskaerak erantzuteko adinako aurrekontu partida izanen du. Liburuak idazteko kostuaren % 50 arte finantzatuko da.

3.2.6 Finantzaketa

Barneko langileen denbora eta programa informatikoen aldaketak baliabide propioekin finantzatuko dira.

Laguntza lerroa 2022ko ekitaldian jarriko da abian, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzatuta.

3.2.7 Arrakasta adierazleak

Honako adierazle hauek proposatzen dira:

3-3 taula. 2. ekintzako adierazleak

	Adierazlea	Helburua
Prozesua	Egutegia	Desbideraketa < hilabete 1
	Parte hartzea	5 eragile
Eraikitako Eraikinaren Liburuaren idazketa eta erregistroa	Kopurua	75 eraikin
Laguntzak	Emandako diru-kopurua	500.000 €
Monitorizazioak	Monitorizazio kopurua	150 etxebizitza

3.3 Ekintzen eskema

3-4 taula. Ekintzen eskema

Ekintzaren izenburua	Inplikaturako eragileak	Kronograma	Kostua eta finantzaketa	Arrakasta adierazleak	
1. ekintza: Esku-hartze Globaleko Proiektuak diseinatzeko toki erakundeentzako laguntza lerroa	<ul style="list-style-type: none"> Udalak Etxebizitza eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoa (EEBB) NASUVINSAre eta PRIMAVERA proiektuaren informazio eta aholkularitza bulegoak Arkitektoak Lanbide elkargoak 	2022. urtea	Baliabide propioak: Langileak: 10.000 € Suspertze eta erresilientzia mekanismoen funtsak: Laguntzen deialdia: 135.000 €	Prozesua	Egutegia Parte-hartzea # onuradunak # EGP # etxebizitzak
2. ekintza: Eraikitako eraikinaren liburuari buruzko eskualdeko araudiaren erregulazioa	<ul style="list-style-type: none"> Nafarroako Gobernua Etxebizitza eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoa (EEBB) Lanbide elkargoak Teknikariak Finken administratzaileak Herritarrak 	2022. urtea	Baliabide propioak: Langileak: 15.000 € Programa informatikoa: 25.000 € Suspertze eta erresilientzia mekanismoen funtsak: Laguntzen deialdia: 500.000 €	Prozesua Eraikitako Eraikinaren Liburuaren erregistroa Laguntzak Monitorizazioak	Egutegia Parte-hartzea Kopurua Esleitutako diru kopurua # etxebizitzak

4 IV. zatia – Eskualdeko Ekintza Plana onartzea

Nafarroako Gobernuko Etxebizitza Zerbitzuak ezarri eta monitorizatuko du ekintza plan hau.

Data:

Lekua:

Eneko Larrarte Huguet

Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako zuzendari
nagusia